



Euskadiko Nekazaritza eta
Elkadura Ekologikoaren
Kontseilua
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euskadi

Urteko inskripzio kuota eta kontrol eta ziurtapen zerbitzuen kostua

8 berrikuspena: Indarrean 2025ko urtariletik

Sistemaren berrikuspenak: urteko zenbatekoak Kontseiluaren osoko bilkurak berrikusi eta onartzen ditu:

- 2009ko ekainaren 2an, urteko tasen sistema hori finkatzea erabaki zen (1 erreb.).
- 2009ko azaroaren 10ean (2 erreb.) beraien ekoizpenarekin elaboratzen duten eragileei kuota aldatzea adosten da.
- 2012ko apirilaren 3an (3 erreb.), bilakaera-aldian zeuden ekoizleen tasa berrikusi zen.
- 2014ko urtarrilean (4 erreb.), kontrol-gastuetarako ekarpena 30 €handitzea adostu da, lehengaiaren jatorriaren kontsiderazioa kendu da eta txikizkako merkataritza barne hartu da. Atzeraeraginez aplikatuko zaie 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako jarduerari.
- 2017ko ekainean (5 erreb.) argiago utzi zen saltokien kuota inskribatutako establezimendu bakoitzeko dela.
- 2021eko martxoan (6 erreb.) Kontseiluaren osoko bilkuraren erabaki bat jaso zen, lehengaiak soilik aldaera bakarrean, eko edo ez eko, erabiltzen duten elaboratzaileen kasuan jarduera mistoaren izaera aldatzeko.
- 2023ko abenduan, tasaren kalkulorako beharrezkoak diren jarduera batzuk 1 Taulan gehitu dira (7 erreb.). Jarduerarik izan ez duten eragileek ordaindu behar duten kuotaren inguruko azalpena ere gehitu da.
- 2024ko urrian eta abenduan, kontseiluaren bilera banatan, honako hau erabaki zen: kontuan hartu beharreko fakturazio-aldia zehaztea; abeltzaintza-jardueraren kasuan, abere-mota eta batez besteko errolda kontuan ez hartzea; herri-mendien kudeatzaileentzako urteko kuota bat ezartzea.



Euskadiko Nekazaritza eta
Elikadura Ekologikoaren
Kontseilua
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euskadi

1. JUSTIFIKAZIOA

Eusko Legebiltzarrak onartutako 10/2006 Legeak, abenduaren 29koa, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoari buruzkoa denak, Kontseiluaren finantziazioaren baliabideak zehazten ditu, 13 artikuluan.

- a) Kontseiluan izena emanda dauden operadoreek ordaindutako kontribuziotik jasotako kopuruak; kontribuzio hori Europako Kontseiluaren 2018/848 Erregelamenduan (EB) aurreikusitako **kontrol-kostuen** ondoriozkoa izango da. Nekazal ekoizpen ekologikoaren kontrol araubidearen gastuak izango ziren, auditoretzak, ikuskaritzak eta analitikak, araudia betetzen dela egiaztatzeko. Gehi Euskadiko Eragile Ekologikoen Errolda mantentzeko gastuak; inskripzio espedienteen tramitazioa, berriztatzeak eta titular aldaketak.

Izaera publikoa duen serbitzua izanik, soilik kontrol eta ziurtapen kostuaren zati bat oradintzen da. Ordainketak izaera publikoko ondare-prestaziotzat hartzen dira.

- b) Kontseiluko kide bihurtutako operadoreek ordaindutako **inskripzio kuoten** zenbatekoa. Helburua, Kontseiluak egiten dituen nekazaritza eta elikadura ekologikoaren **sustapen eta zabalkunde** lanak zati baten ordaintzea izango zen.

Nekazaritza ekologikoaren araudiaren egiaztapen lanak, ondorengo jarduerak barne hartzen ditu:

- Eskaera edota espedientearen berrikustea
- Auditoria/ikuskatze bisita, joan-etorrien kostua barne
- Produktu, lur, ura eta bestelako matrizeen analisisa egitea, Kontseiluak hala balioztatzen duenean.
- Dokumentazioa jasotzea eta bidaltzea
- Legediaren ez betetzeak antzematen direnean, aurkeztutako jarduera zuzentzaileen azterketa eta Ziurtapen Batzordearen ebaluaketa
- Ziurtagiriaren bidalketa, hala dagokionean eta etiketen aipamenen azterketa eta onarpena.

Legediaren ez adostasun bat zuzendu dela egiaztatzeko, ala produktu kutsatzaile baten izatea baztertzeko, egin beharreko **ikuskatze bisita edota ez ohiko analisiak, kostu gehigarria** dauka eta baita analisi kontraesankor bat burutzeak.



Euskadiko Nekazaritza eta
Elikadura Ekologikoaren
Kontseilua
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euskadi

2. EKOIZTEN DUTEN PERTSONA ETA ENPRESAK

Nekazari, abeltzain edota bestelako nekazal ustiatuegiaren titularrek egindako ekoizpen lanei ezarritakoa. Dagokionean ustiatuegiaren bertan ekoizturiko produktuen ontziratzea eta lehen etiketatua ere hemen sartzen da.

1. Kontrol gastuetarako urtero egindako ekarpena: 90€

2. Sustapen eta zabalkunde lanetarako urteko kuota: 40€ x ustiatuegiaren tamaina

Ustiatuegiaren tamaina, Nekazaritza Ekologikoan inskribaturiko azalera edota batez besteko abelburu kopuruaren arabera zehazten da.

Labore eta abere mota ezberdinak kontutan izateko, **taula 1**-ean jasotzen dira **orientazio produktibo** bakoitzarentzat **neurri unitateak**.

Kide bakoitzak daukan hektarea edota abelburu kopurua **urtero berrikusten da**, bietatik edozeinek eskatuta. Kontutan hartzen dira, azken eskaera, azken nekazal lursailen aitortpena edota abere errolda.

Abere kopurua zenbatzeko garaian, abelburu kopurua zehaztu behar da, kontrola egiterako momentuan.

Erlezaintzan ere irizpide bera jarraitzen da. Nukleo berriek eta erlauntza ez produktiboek, erdia zenbatzen dute eta kopurua kontrola egiterako momentuan hartzen da.

Abeltzainen kasuan, **larreak eta belardiak** etxerako badira ez dira lan unitateen kalkuluan kontutan hartzen, soilik abereak edota saltzeko izan daitezkeen belardiak.

Jardueran inskribatu berri diren ekoizleei, tasaren lehenengo ordainketan %50-eko beherapena egingo zaie.

Adibidea: Larre eta belarditan 20 ha dituen ustiatuegia, denak etxerako. Haragitarako 15 behi eta adineko zekor (txahal) eta 160 ardi:

Kalkulua: Ustiatuegiko larre eta belardiak etxerako dira beraz 20 ha ez dire kontutan hartzen.

$$90€ + 40€ \times (15 \text{ behi ta txahal} / 15^{(taula1)} + 160 \text{ ardi} / 80^{(taula1)}) = 210€/urtea$$



Taula 1. Unitatearen balioa ekoizpen motaren arabera.

		Abelburuak	
BARAZKIAK (Baratza aire zabalean)	5.000 m ²	HEGAZTIAK arrautzarako eta okelarako oiloak, beste hegaztiak	1.670
BARAZKIAK NEGUTEGIAN	1.500 m ²	BEHIAK esnetarako	8
BARAZKIAK LANDAKETA ESTENTSIBOA	2,5 ha.	BESTE BEHI AZIENDA, behiak, txahalak, zezenak...	15
FRUTARBOLAK, ETA FRUITU LEHORRAK, MAHASTIAK, OLIBONDOAK	2,5 ha.	AHUNTZ AZIENDA	100
ALETARAKO ZEREALAK	20 ha.	UNTXI AZIENDA untxi amak bakarrik	130
JATEKO PATATA	6 ha.	ZALDI AZIENDA	40
HAZITARAKO PATATA	4 ha.	ARDI-AZIENDA	80
LEKALEAK	4 ha.	TXERRI-AZIENDA esne-txerrikumeak salbu	50
SALTZEKO HAZIAK ETA LANDAREAK*	1.400 m ²	ERLAZAINZA erlauntz kopurua	140
USAIN-SENDA BELARRAK TA ESPEZIAK	2 ha.	OREINAK	33
LABORANTZA INDUSTRIALA EKILORE, KOLTZA	20 ha.	BARRASKILO AZIENDA	1.800 m ² ekoizpen azalera
LABORANTZA INDUSTRIALA ERREMOLATXA	8 ha.		
SALTZEKO BAZKA LABORANTZAK, LEKADUNAK-PROTEAGINOSAK *	10 ha.		
SALTZEKO BEREZKO BELARDIA, BELAR SOROA*	20 ha.		
SALTZEKO MENDIKO LARREAK*	50 ha.		
LABORANTZARIK EZ, BASOLARREAK, SASTRAKETAKO ESPEZIAK	100 ha.		
BESTELAKO LANDAKETAK	2,5 ha.		
NEGUTEGIKO FRUTAZAINTZA	0,5 ha.		
BASO BILKETA	50 ha.		

* Soilik salmentara bideratzen den bazka laborantzak hartu behar dira kontutan, ustategiko abereek kontsumitzen dutena ez da kontutan hartzen.

2.1. MENDI KOMUNALAK

Kuota kontrol- eta ziurtapen-zerbitzuengatik bakarrik ordaintzen da, eta urteko kuota finkoa 330 eurokoa da, hartutako azalera edozein dela ere.



1. ELABORAZIO EDO MANEIATZE LANAK

Produktuak iraunarazi, transformatu, eta elaboratzen duten pertsona edota enpresei dagokien urteko tasa (emandako zerbitzuak barne: abereen akabatzea eta txikitzea, ezta ateratzea, aleak garbitzea etab.). Hemen sartzen dira baita, ontziratu edota etiketetan nekazaritza ekologikoaren aipamenak aldatzea.

Ekoizle-elaboratzaile direnentzat, lan hauetan erabiltzen duten **lehengai gehiena norberak ekoiztua** denean, **ez da nekazaritza ekologikoaren sustapen eta zabalkunde lanetarako tasarik ordaintzen**.

Beste guztientzat, ekoizleak ez diren enpresak edota lan nagusia produktuak iraunaraztea, trasformatzea edota elaboratzea direnentzat, urteko ordainketa, **kontrol gastuen eta sustapen eta zabalkunderako tasaren batuketa** izango da. Lehenengoa aktibitate motaren arabera da eta bigarrena ekologikoan fakturatutako zenbatekoaren arabera da.

Jarduera faltagatik auditoretzarik, ikuskapenik edo analitkarik jaso ez duten eragileek baina erregistroan inskribatuta jarraitzen dutenak kontrol-gastuak soilik ordainduko dituzte.

1. Kontrol gastuetarako urteko ekarpena

Araudi ekologikoa ez betetzeko arriskuaren ikuspuntutik, kontrol lanen gastua desberdina izaten da eragileak lan instalazio mixtoak baldin baditu.

ERAGILE MOTA	Urteko zenbatekoa
Bi kasu hauetakoren bat betetzen da: 1. Titularrak egiten duen mota honetako ekoizpen edo ekoizpen orientazio guztia ekologikoan ziurtatuta dago. 2. Lehengai bera ez da erabiltzen, eta ez dago, aldaera ekologikoan eta ez-ekologikoan. Lehengai berdinak eko eta ez eko ekoizpen lerroetan erabiliz gero, aldaera ekologikoan soilik erosten dira.	130 €
Titularrak ekologikoan ziurtatuta duen ekoizpena edo ekoizpen orientazio berdina ekologikotik kanpo ere ekoizten du, eta ez da aurreko puntuko 2 kasua ematen.	330 €

2. Sustapen eta zabalkunde kuota

Nekazaritza Ekologikoan erregistratutako jardueren urteko **fakturazioaren** arabera da. Produktu ekologikoen salmenta zein bitartekari bezala egindako zerbitzuen fakturazioa (hiltegia, zatiketako gela, jaki lantegiak etab.) hartu behar dira kontutan.



Urteko eko fakturazioa (BEZ sartu gabe)	fakturazioaren %
lehenengo 60.000 €	% 0,4 (1/250)
60.000 €-tik aurrerakoak	% 0,2 (1/500)

Fakturazio-datua inskribatutako enpresa operadoreak ematen du, eta aurreko urteko urriaren 31tik uneko urteko azaroaren 1era bitarteko aldiari dagokio, kuota kalkulatzeko den urterako.

1. INPORTAZIOA ETA MERKATURATZEA

Ordainketa hau ezartzen zaie produktuen inportazioa edo ekoizpen ekologikorako lehengaiak hirugarren herrialde batetik ekartzen duten enpresei, distribuzio lanak egiten dituzten bitartekariei, eta azken kontsumitzaileari saldu eta araudiaren arabera izena ematera derrigortuta dauden dendei.

Merkaturatze lanengatik urteko tasa ordaintzetik kanpo gelditzen dira, kontseiluan jadanik inskribatuta dauden ekozle eta elaboratzaileek saltzen dituzten ekoizpen propioak.

BANATZAILE ENPRESAK ETA INPORTAZIO LANAK EGITEN DITUZTENAK

1. Kontrol gastuetarako urteko ekarpena

Elaborazio lanentzat bezala, araudi ekologikoa ez betetzeko arriskuaren ikuspuntutik, kontrol lanen gastua desberdina izaten da eragileak lan instalazio mixtoak baldin baditu.

ERAGILE MOTA	Urteko zenbatekoa
Titularrak egiten duen mota honetako ekoizpen edo ekoizpen orientazio guztia ekologikoan ziurtatuta dago	130 €
Titularrak ekologikoan ziurtatuta duen ekoizpena edo ekoizpen orientazio berdina ekologikotik kanpo ere ekoizten du.	330 €

2. Sustapen eta zabalkunde kuota

Nekazaritza Ekologikoan erregistratutako jardueren urteko **fakturazioaren** araberakoa da.

Urteko eko fakturazioa (BEZ sartu gabe)	Urteko kuota fakturazioaren %
lehenengo 60.000 €	% 0,1 (1/1000)
60.000 €-tik aurrerakoak	% 0,05 (1/2000)



**Euskadiko Nekazaritza eta
Elikadura Ekologikoaren
Kontseilua**
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euskadi

Jarduera faltagatik auditoretzarik, ikuskapenik edo analitikarik jaso ez duten eragileek baina erregistroan inskribatuta jarraitzen dutenak kontrol-gastuak soilik ordainduko dituzte.

Elaborazio aktibitaterako esan bezala, Fakturazio-datua inskribatutako enpresa operadoreak ematen du, eta aurreko urteko urriaren 31tik uneko urteko azaroaren 1era bitarteko aldiari dagokio, kuota kalkulatzen den urterako.

AZKEN KONTSUMITZAILEARI PRODUKTUA SALTZEN DIOTEN DENDAK

Urteko tasa bakarra da, titularrak inskribatuta duen denda bakoitzeko kalkulatzen da honen arabera:

TIPO DE OPERADOR	Importe anual
Salmenta tokian saltzen diren nekazal produktu desberdinen %95-a baino gehiago modu ekologikoan ere eskaintzen da.	60€
Aurreko portzentaia %95 baino txikiagoa da.	100€